

2019-2020 ikasturtea

# URDAIBAI BIRD CENTER

Eskolentzako programa didaktikoa

*Hegaztiak eta beraien migrazioak aztertzen*



URDAIBAI  
**BIRD CENTER**  
✦ ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES





# Zentroaren inguru naturala

## Gautegiz-Arteagako hezeguneak



**URDAIBAI BIRD CENTER** Gautegiz Arteagan kokatzen den naturaren museo bizia da. Zentroa **Aranzadi Zientzia Elkartek** kudeatzen du eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren laguntza jasotzen du.

Hiru aspektu nagusitan bideratzen da zentroko lana: **hegaztien bizileku eta migrazioen ikerketa**, **jasotako** emaitzen **dibulgazio zientifikoa** eta ingurumen hezkuntza.

Zentroa **URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAN** kokatuta dago eta **interpretazio-ekipamendu** garrantzitsua du berezko ekoizpeneko ikus-entzunezko proiektzioan oinarriturik.

1984. urtean **UNESCOk** **Urdaibai Biosfera Erreserba** babestutako eremua izendatu zuen, bere sasoian, E.A.Eko lehen eremu babestua izatera pasatu zen. Horrez gain, Natura 2000 Sarearen parte da eta bertako paduren garrantziagatik Nazioarteko garrantzizko hezeguneak babesteko **RAMSAR**-eko hitzarmenean sartuta dago.

Zentroan, Gautegiz Arteagako hezeguneetara (Oruetako urmaelak) bideratuta dauden **begiratoki zoragarri bi** daude. Bertatik hainbat eta hainbat hegazti behatzeaz gain paisai ikusgarriaz gozatu daiteke ere.

18 metroko altueran kokatutako Zentroko **dorre zenitaletik**, Urdaibai barruko hezeguneetaz disfrutatu daiteke 360 graduko ikuspegi panoramikoarekin.

Horrez gain, Urdaibai Bird Center-ek bere inguruan, hezegunearen ondoan hain zuzen ere, kokatzen diren **bi behatoki** kudeatzen ditu. Eskolen bisitaldien barruan hegaztiak behatzen jarraitzeko irtenalditxo bat egiten da.

**Autobusentzako Parking** berezia dauka Zentroak. Behar izanez gero, ikasleentzako aisialdi-toki gisa, 500 m-etara dagoen Gautegiz Arteagako frontoira joateko giltzaren kudeaketa egin daiteke zentrotik.

### ORUETA URMAELA



Barnealdeko paduretan kokaturik, Urdaibai Biosfera Erreserbako hezegunerik garrantzitsuenak da eta hegazti dibertsitate oso handia eskaintzen du. 2009an zaharberritu zenetik gaur egunera 200 espezie baino gehiago ikusi dira.



# Eskolentzako programa didaktikoa

Urdaibai Bird Center-ek eskaintzen duen programa didaktikoa ingurune naturalaren behaketan eta esperientziazko oinarrituta dago, esparru teorikoan ikasitakoa dedukzio-ikaskuntzarekin uztartuz. Bi bisita mota desberdin diseinatu dira (1 h edo 2h 15min) sakondu nahi denaren arabera ikastetxe bakoitzak aukera du bisita luzea edo laburra egiteko.

Programa horren **HELBURUAK** ondorengoak dira:

- ✓ Hegaztien eta beraien habitaten arteko erlazioaren ezagueran sakondu eta sentsibilizatu.
- ✓ Hegaztien migrazio fenomenoaren ezagutza eskala mundialean eta eremu hurbilean duen eragina aztertu (Euskal Herria – Urdaibai).
- ✓ Ikaste prozesuetan ikerketaren garrantzia aditzera eman.
- ✓ Hegaztiak erabili tresna pedagogiko gisa eskolaren curriculumaren ikasgai desberdinetako ikaskuntza bultzatzeko.
- ✓ Hegazti espezie desberdinen ezaguera baliatuz “Biodibertsitate” kontzeptua ezagutarazi ikasleei.

Urdaibai Bird Center-en eskaintzen diren edukiak ikasketa maila bakoitzaren helburu curricularrei egokituta daude. Horiek horrela, bisitaldi tematiko bakoitzak unitate didaktiko bat izango da, bai ikasleei bai irakasleei bisitaldian laguntzeko.





# Bisitaldi tematikoak

## Urdaibaiko hegaztiak eta beraien habitatak: Hezeguneak

### Helburu espezifikoak:

- ✓ Urdaibaiko Aberastasun ornitologikoa eta ekosistemikoa ikasleei ezagutarazi uretako hegaztiak padurarekin duten lotura estua erakusten experimentazio zuzenaren bidez.
- ✓ “Biodibertsitate” kontzeptua ulertarazi Urdaibai Biosfera Erreserbako hezeguneetan behatu daitezkeen uretako hegaztien identifikazioaren bidez.

### Jarduera espezifikoak:

- ✓ Urdaibai Bird Center-era bisitaldia Gauegiz Arteagako hezeguneko uretako hegaztien behaketa espezifikoa eginez.
  - ✓ Hegazti talde desberdinen, beraien ekologia, fenologia eta beraien status-a Urdaibain ezagutu.
  - ✓ Hezeguneetan dauden hegaztien identifikazio jardunaldia.
- \* Unitate didaktikoa Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Batxilergora arte.





## Arrano arrantzalea Urdaibain

### Helburu espezifikokoak:

✓ Arrano arrantzalea, hezeguneekin duen lotura estua eta betetzen dituen aparteko migrazioak ezagutzeko tresna pedagogiko moduan erabiltzea.

✓ Urdaibai Biosfera Erreserban aurrera eramaten ari den arrano arrantzalearen berreskurapen proiektua erakutsi.

### Jarduera espezifikokoak:

✓ Monitorizatuak izan diren Urdaibaiko arrano arrantzaleen migrazio bidaia nolakoa izan den ezagutu eta beste lurralde batzuekin espezie honek duen harremana erakutsi.

✓ Kontinenteen arteko migrazio bidean zehar arrano arrantzaleekin batera migratzen diren gainontzeko espezieen ezagutza sakontzea.

\* Unitate didaktikoa eskuragarri lehen hezkuntzako 3.mailatik D.B.H. 4.mailara. Horrez gain, material gehigarriak deskargatzeko aukera atari honetan: [www.urdaibaiospreys.eu/eu/](http://www.urdaibaiospreys.eu/eu/)





## EDUKI OROKORRAK

- ✓ Atlantiko ekialdeko migrazio-bideari buruzko deskripzio eta sarrera mapa argiztatu handi baten bidez.
- ✓ “Hegaztiak eta meteorologia” izeneko ikus-entzuneko bideoaren proiektzioa non migrazioa eta meteorologiaren arteko harreman estua azalduko den.
- ✓ Multimedia moduluen interpretazioa.
- ✓ Urdaibai Biosfera Erreserbaren sarrera.
- ✓ Gauegiz-Arteagako hezeguneetako hegaztien identifikazioa multimediararen bitartez.
- ✓ Zentroak egiten dituen ikerketa proiektuen erakustaldia.
- ✓ Zentrotik hegaztien behaketa eta identifikazioa teleskopio eta prismatikoak erabiliz.
- ✓ Dorretik Urdaibai barruko hezeguneen paisaien interpretazioa.
- ✓ Gauegiz-Arteagako behatokitako batera bisita (*Soilik bisita berezian*).

Bisitaldiak, zentroaren ezaugarriak kontutan hartuta, Lehen Hezkuntzako 3.mailatik aurrera egiteko gomendatzen dira D.B.H, Batxillergoa eta Goi mailako ikasketak barne (\*).

SALNEURRIAK (prezioa ikasleko):

| BISITALDI MOTA    | IRAUPENA           | EZAUGARRIAK                                    | Prezioa Ikasleko |
|-------------------|--------------------|------------------------------------------------|------------------|
| Oinarrizko Bisita | Ordu 1             | Zentro barruan bisita                          | 2 €              |
| Bisita Berezia    | Ordu 2 eta 15 min. | Zentro barruan bisita eta behatokitara irteera | 4 €              |

## Bisitaldien eskema eta edukiak



Urdaibai Bird Center-ek bisitaldi programa espezifiko bat diseinatu berri du maila desberdinetako ikasleei bideratua eta egokitua.



(\*) Bisitaldi bakoitzeko pertsona kopuru maximoa 60 pertsonakoa izango da. Hiru taldetan banatuko da taldea eta gehienez 20 pertsona izango da monitore bakoitzaren ikasle kopurua.



# Nola iritsi



## Helbidea eta kontaktua:

Gernikatik Lekeitiorako bidea – Orueta auzoa 7.  
48314 Gautezig-Arteaga (Bizkaia).  
Tel: 946 251 157 / 699 839 202  
E-mail: [birdcenter@birdcenter.org](mailto:birdcenter@birdcenter.org)

## Izen-emateak eta informazioa:

Izen-emateak irailaren lehen astetik aurrera egin ahal dira telefono horietara deituz. Deien ordena errespetatuko da plazak bete arte.

[www.birdcenter.org](http://www.birdcenter.org)  
[www.urdaibaio spreys.eu](http://www.urdaibaio spreys.eu)

